

Gernika(k) egungo euskal literatura feministan¹

Gernika(k) in Contemporary Basque Feminist Literature

MARI JOSE OLAZIREGI

Universidad del País Vasco
/ Euskal Herriko Unibertsitatea
mj.olaziregi@ehu.eus

Recepción: abril de 2025. Aceptación: mayo de 2025.

Patri Urkizu adiskide maiteari,
esker onez eta miresmenez

Laburpena: Artikulu hau XXI. mendeko euskal literatura feminista Gernika-ren bonbardaketaz eta Picassoren koadroaz egiten ari den irakurketa berrietara hurbiltzen da. Helburua bonbardaketaren birsemantizazioetan sakontzea da, baita bonbardaketaren literatur irudikapenek gaur egun lituzketen funtzioetan ere. Miren Agur Meabe, Garazi Goia, Irati Elorrieta eta Alaine Agirre euskal idazle garaikideek sinatutako lau eleberrik, Eider Rodriguez eta Goiatz Labandibarren ipuin batzuk, eta Ixiar Rozasen poema liburu batek osatzen dute aztertu beharreko testuen corpusa. Obren irakurketak agerian uzten du memoria kritikoa dela nagusi, hau da, sarraskiaren deskribapen historiko edo piktoriko eguneratuari baino gehiago sarraskiak euskaldunen bizitzetan izan duen eragina aztertzeari erantzuten dion oroimena dela nagusi. Era berean, bistakoa da Picassoren koadroaren ekfrasi eta irudikapenek duten presentzia ugaria eta fikzioetako protagonisten bizi-une kritikoak azaltzeko duten gaitasuna. Artikuluak bereziki sakontzen du amatasunaren kontzeptuaren garrantzian, bonbardaketaren narrazio historikoa eta bere irudikapen piktorikoa gidatu duen genero-politika salatu nahi duen irakurketa egiteko.

¹ Artikulu hau UPV/EHuko MHLI (Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan; mhli.net) ikertaldea burutzen ari den IT 1579-22 (Eusko Jaurlaritz) eta PID2021-125952NB-I00 (MICIU/AEI/10.13039/501100011033&FEDER, EB) proiektuen barruan idatzi da. 2024ko ekainaren 16an Gernika-Lumon ospatu genuen «Gernika(k)/ Guernica(s): trauma historiko baten birsemantizazioak» nazioarteko biltzarrean eman nuen hitzaldia jasotzen du.

Gako hitzak: Gernika, Guernica, euskal literatura feminista, memoria, Gerra Zibila.

Abstract: This article approaches the representations of the bombing of Gernika and Picasso's painting in 21st-century Basque feminist literature. The objective is to delve into the re-semanticizations of the bombing, as well as the functions they serve. Four novels by contemporary Basque authors Miren Agur Meabe, Garazi Goia, Irati Elorrieta, and Alain Agirre, short stories by Eider Rodríguez and Goiatz Labandibar, and a poetry collection by Ixiar Rozas make up the corpus of texts to be analysed. The reading of the works reveals that it is a critical memory that prevails, that is, a remembrance that, rather than an updated historical or pictorial description of the massacre, aims to analyse the influence it has had on the lives of Basque men and women, as well as to highlight the presence and prevalence of Picasso's painting in explaining critical life moments of the protagonists in the fictions. The article delves, especially, into the importance of the concept of motherhood to make a reading that seeks to denounce the gender politics that has governed both the historical narrative of the conflict and its pictorial representation.

Keywords: Gernika, Guernica, Basque feminist literature, memory, Spanish Civil War.

I. SARRERA

Has gaitezen honako hau esanez: *Gerrak ez du emakume aurpegirik*. Jaki-na denez, hitzok Svetlana Aleksievitx Nobel saridunaren liburuari egiten diote erreferentzia, 2017an euskaraz ere argitaratu zena, Iker Sanchoren itzulpenari esker. Izugarria da bertan kontatzen dena, ikaragarriak bertan jakitera ematen zaizkigunak: ia milioi bat izan ziren II. Mundu Gerran parte hartu zuten emakume sobietarrak: mediku eta erizainak, frankotiratzailleak, tanke-gidariak, gerrillari partisoanok... Euren lekukotasunetatik abiatuz idazten du liburua Aleksievitxek eta, gaurtik begirata, gerra egin zuten emakume haiekiko ahanztura eta misoginia historikoak deitzen du atentzioa. Zail da gerran hildako milaka emakumezko haiek behar luketen aitortza konpontzea, baina Jill Bennettek esan bezala (2009), artelanak enpatia ahalbidetzen du, gudu zelaietan, dela frontean, dela erretagoardian, bizitako sarrasketan izaki horiek sentitutakoa transmititzen digu, Historiak zailtasunez helaraziko digun emozioz. Gogora dezagun, gainera, memoria dela literaturaren langai oinarritzkoena, izaera narratibo eta irudimenezkoa duen memoria, denok dakigun bezala.

Genero ikuspegitik heldu nahi dio artikulu honek Gernikaren bonbardaketaren irudikapenari, Picassoren mihiseari ere egindako erreferentziak tartean. Egungo literatur analisietan ohikoa denez, hurbilpen metodologiko desberdinak baliatuko ditugu, aztergai diren testuen arabera. Hala, narratologiaren oinarritzko kontzeptuez gain, genero ikasketetan ohikoak diren genero-rol eta generopolitiken azterketa, batetik, eta amatasuna bezalako kontzeptuak, bestetik, izango ditugu mintzagai. Ez da corpus oso zabala erabiliko, Memoria Historikoa

Literatura Iberiarretan ikertaldean garatzen ari garen Gernikari buruzko datu-basetik abiatu naiz eta azken bi hamarkada hauetan euskal emakumezkoek idatzitako 9 literatur lanetatik 6 hautatu ditut. Hurrenkera alfabetikoan, honakook dira: Alaine Agirrerren *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama* (2017), Irati Elorrietaren *Neguko argiak* (2018), Garazi Goiaren *Txartel bat (des)herrira* (2013), Miren Gorrotxategiren *33 ezkil* (2018), eta Miren Agur Meaberen *Urtebete itsasargian* (2006). Poemen artean, berriz, Ixiar Rozasen “Zumetaren Gernika” hautatu dut, *Patio bat bi itsasoen artean* (2001) liburutik. Azkenik, honako ipuinok aipatuko ditut, Eider Rodríguezen “Bihotz handiegia”, *Bihotz handiegia* (2017) liburutik eta Goiatz Labandibarren “Munstroa”, *Amez* (2022) liburutik.

Genero ikuspuntua, beraz, gure trauma historiko ezagunenaz idatzitakoa aztertzeke. Metafora erraz bat erabiliz, Gernika betaurreko morez begiratuko dugula esan genezake eta hala, Koldo Izagirrek “Lauaxetaren betaurrekoak” poeman Paul Eluarden “La Victoire de Guernica” poemarekin duen elkarriketa literarioan Picassoren eta Eluarden artelanei euskal lekukotasuna eta ikuspuntua falta zitzaiea aitortu bazuen (ik. «Baina poeta frantsesak ezin du ulertu / Picassoren oihalari poeta bat falta zaiola / Euskarazko ohiu hori duela eskas»), neu haratago joango naiz eta Gernikak emakumeen gorputz eta ahotsak ere izan zituela gogoratuko dut.

Tzvetan Todorov literatur teorialariak esana da memoria oro hautapen baten ondorio dela eta hautatzeak beste zerbait ahaztea dakarrela berarekin (Todorov 2002). Gure kasuan, begirada more horrekin bideratu ditugu azken hamarkadetako memoria historikoari buruzko lanak. Emakumezkoen sorkuntza lanen berezitasunak, gai eta begirada berriak eta, batez ere, euren literaturan antzematen dugun kartografia afektiboa aztertzen dihardugu.

Feminismoaren eta politikaren eraldaketak aztertu dituen Mariluz Esteban antropologo feminista eta idazleak 2008tik aurrera mendebaldean eta gurean eman diren aldaketak azpimarratu ditu, euskal gatazka armatuak, kasu, erakarritako arreta mediatiko eta soziopolitikoak beste gatazkak, generoari dagozkionak estali dituela baieztatuz (Esteban 2017). Ez dugu tarterik azken hamarkadetako uhin feministak euskal memoriari buruzko ikerketetan unibertsitatean, dibulgazio lanetan edo eraginkortasun soziopolitikoa bilatzen duten jardueretan emandako fruituak aztertzeke (Lisipe, Eskafandra, Ahotsak, Emagune, etab.), baina honakoa azpimarratu nahiko genuke: ETAk eragindako gatazka armatuarekin gertatu den bezala, 1936ko Gerra hizpide duten azken hamarkadetako literatur lanetan ere euskal gudariarengan ardazten den testuinguru hipermaskulinizatutik beste gai, ikuspuntu eta genero rola erakusten dituzten fikzioetara iragan gara.

II. AHOTS AHAZTUAK BERRESKURATUZ

Edonola ere, ahaztutako ahots eta literatur lanen berreskurapen ahalegin hau ez da azken bi hamarkadetako emakumezkoen lana aldarrikatuz bakarrik egin, hortxe dauzkagu, esaterako, joan den mendeko 20ko eta 30eko hamarkadetan euskal emakumezko idazle abertzaleen ekarpena aitortu eta ezagutzera ema-

teko egin diren ahaleginak. Esaterako, Emakume Abertzaleen Batzak ikerketa berriak erakarri ditu. 1922an sortu eta 1931-36 artean aldi emankorrena izan zuen talde hau 28.500 afiliatu izatera iritsi zen eta gizarte-laguntzan, hezkuntza informalean edo erbesteko harrera sare eta espioitzan jardun zuen. Literaturari dagokionez, garaiko prentsa abertzalean idatzi zuten (*Bizkaitarra*, *Eguna*, *Euzkadi*, etab.), esparru publikoan mitinlari gisara ere ahaldunduz. 2012an argitaratu zuten EHUKo Begoña Bilbaok eta bestek EABri buruz garatutako ikerketa proiektuaren fruitua eta 2022an erakusketa gisara mugitu. Julene Azpeitiaren bizitza eta obrari buruzko argitalpen mardula zor diogu Xabier Altzibarri (2021), eta Tene Mujikari buruzko hiru argitalpen ere ezagutu ditugu (Goiakoetxea 2022; Crespo 2022; Ibarrola 2022), tartean, galdutako hainbat testu ere berreskuratuz, hala nola, Jule Gabilondoren *Jel-azia* (2023). Gerraz dihardugula lehen ilaran borrokatu zuten gudariak bakarrik datozkigu beti gogora, baina tamalez sarraskiaren itzala eremu guztietara hedatu zen, erretagoardiara bereziki. Deigarriak dira azken urteotan gerrarekin lotutako genero jazarpenari buruz jakin ditugunak, dela Erik Zubiagak (2023) hainbat iturritatik edanez judizialki (gerra kontseiluen bitartez, nagusiki Bizkaian) eta epaitegietatik kanpo errepresio ekintza basatietan, gehienak Gipuzkoan, azaleratu dizkigun datuak. 1936-45 urteen artean emakumezkoek 727 kartzela zigor eta 37 heriotza zigor izan zituzten EAEn bakarrik. Ideologia ezkertiarra eta abertzalea ziren, noski, zigortzen zirenak. Ekintzak, mota guztietakoak, prentsan idaztea bera ekintza subertsiboa zen. Horren adibide da Juana Mir García, Bilbon bizi zen 32 urteko kazetari nafarra. *La Tarde* egunkarian “La mujer escribe” izenburuarekin argitaratutako bost zutabek eraman zuten heriotza zigorrera eta Derion fusilatua izan zen 1937ko abuztuan. Bistakoa da 1936ko Gerran ideologia guztietako emakumezkoek jasandako errepresioaren ikusgarritasuna (eredugarriak ziren zigorrak) eta zigor askoren izaera eskatologikoa. Emakumezkoaren zernahi ekintza (ez du gerraren lehen ilaran borrokatu behar, bistan dena), transgresio ekintza hutsa zen, iraultzailea, baina emakume izate hutsagatik zigortuak izan ziren. Euren emakumetasuna zen zigorgai: miliziana, erizain, laguntzaileak zigortu ziren, baina baita etxean geratu ziren emazte, alaba, ahizpak... euren sendiko kide maskulinoa okerreko bandoan zeukatenak.

III. GERNIKAREN IRUDIKAPENAK EUSKAL LITERATURAN

2011n *Revista Internacional de Estudios Vascos* (RIEV) aldizkarian argitaratu zen artikuluan (Olaziregi + Otaegi 2011) Gernikaren bonbardaketak euskal literaturan izandako irudikapenari lehenengo hurbilpen bat egin genion. Oro har, legezko gobernuaren kontra altxatutakoen gezurrak eta krudelkeria salatu nahi zuten lekukotzetatik, Gerran galdutako aukerak eragindako tristura eta et-sipenera pasa ziren euskal idazleak XX. mendean. Jarraian etorri zen, eleberri-gileen eskutik bereziki, bonbardaketa eta gerraren galeraren osteko errepresio bortitzak ekarri zuen euskal politikaren erradikalizazioaren gaineko irakurketa. Euskal literaturak, zentzu horretan, ETaren gatazka armatuaren hasiera gerraosteko bortizkeria eta jazarpen giroarekin lotu du eta Gerra ez zela Gernikan bukatu bezalako baieztapenak behin baino gehiagotan errepikatu dira gaur arte (ik. *Gerra txikia*, 2014). Edonola ere, azpimarragarria da, batez ere azken hiru

hamarkadetan, Gernikan populazio zibilaren kontra gertatutako sarraskia beste genozidioekin konparatzeko egin den ahalegina, mezu humanista eta bakezaleagoa proposatuz. Picassoren koadroari dagokionez, gainera, deigarria da joan den mendeko 80ko hamarkadatik aurrera hasten direla hari egindako erreferentziak gure literaturan, koadroa 1981ean Madrilera eraman izanak suspertuak (Retolaza, 2009). Esandakoaz bat, deigarria da, halaber, Picassoren koadroari esker, bonbardaketa gizateria zibilaren kontra egindako sarraskien salaketaren sinbolo globala bihurtzen joan den neurrian, euskal literaturan indartuz joan dela artelan horren oinarrian dagoen gertakari historikoa azpimarratzeko beharra, «gure Gernika», «gure hilak» azpimarratuz. Halaxe gertatzen da, adibidez, *Soinujolearen semea* (2003) eleberrian.

Esku artean dugun corpusari begira, azpimarratzekoa da Gernikako bonbardaketaren aipu esplizituak nagusiki bi eleberritan azaltzen direla: Miren Agur Meaberen *Urtebete itsasargian* (2006) eta Garazi Goiaren *Txartel bat (des)herrira* (2013) lanetan. Datu historiko ugari eskaintzen dituzte eleberriok baina, 1936ko Gerraz hitz egin duten eleberri gehienetan gertatzen denaren kontra, gerraren frontean daudenak, gudariak, ez dira protagonistak. Gerraren biktima zaurgarriak dira protagonistak, nerabe bat Meaberen kasuan eta haur zenean Habana itsasontzian erbesteratu zuten egungo jubilatutako britaniar bat Goiarenean. Meabek, esaterako, Garraitzetako fikziozko Lekeitio bere jaioterrian kokatzen du istorioa eta gerran suntsitzen ahalegindu zirena gure memoria kulturala ere izan zela azpimarratzen digu nobelak, urte haietan euskal kulturak bere idazleen bitartez eta Emakume Abertzale Batzako emakumeei esker emandako pausoak ezabatuz. Duela urte batzuk argitara eman zen artikuluan zehatzago azaldu genuen bezala (ik. Olaziregi, 2014), Meaberen eleberriko Lekeitio kultura jardueraz betetako herria da, nobelaren izenburuko «itsasargi» hitzean iradokitzen den bezala, gainera etorri zaigun itsaso beltzean gure aberriaren berpizkundea gidatu behar duen itsasargia. Aitzol, Lauaxeta, Erkiaga, Sorne (Unzueta)... Garraitzetako kaleetan ikusten ditugun sortzaileak dira, gerrak erauziko dituenak. Bere aldetik, *Txartel bat (des)herrira*-k bi desplazaturen istorioak kontatzen ditu. Alde batetik, jubilatutako bat dugu, Peru, duela 62 urte, 1937an, 4.000 haur euskaldunekin batera, Erresuma Batura erbesteratu zutena Habana itsasontzian. Bestetik, Ibai, neska-lagunarekin izan zuen trafiko-istripuak eragin zion trauma gainditu nahian Londresera ihes egin duen gaztea. Biak Londresko pub batean elkartzeko dira, bertan ari baita lanean Ibai gaztea eta deserrotze sentimendua partekatzen dute. Deigarria da Goiaren eleberriak istorioa testuratzeko baliatzen duen testu-mota aniztasuna, koaderno, gutun, poema, kontakizun historiko eta bestelakoekin, desplazatu orok partekatzen duen inongo ez izatearen sentimenduan sakontzen asmatzen baitu. Bonbardaketari egindako erreferentzia milaka euskal haurrek jasan zuten ebakuazio tragikoa aipatzen denean dator, xehetasun ugari eskainiz:

Rügen operazioa: 1937ko Apirilaren 27an, Lufwaffe naziaren Kondor Legioa eta italiar faxistaren Aviazione Legionarioko hegazkinek Gernika airez bonbardatu zuten. Gernika, Bilborako bidean leku estrategikoan zegoen, Euzko Gudarostearen erretreta bidean. Erasoaldiek ia Gernika osoa deuseztatu zuten [...] deserrira [...] betirako? Ezetz esan ziguten. Hiru hilabeterako bakarrik. Baina

gezurra zen. Ingalaterran albisteak zabaldu dituen kazetaria: George Steer. The Times egunkarian horrela hasi zuen bere albisteak: «Bilbo, 1937ko apirilak 27. Gernika guztiz suntsitua izan zen atzo arratsaldean airez egindako erasoetan. Gernika euskaldunen herririk zaharrena eta kultur tradizioaren gune nagusia da» (48).

Eleberrian hainbat gertakari historiko deskribatzen dira, hala nola, pilotu alemanek zibilak metrailatu izana, bonbardaketaren berri eman zuten atzerriko kazetarien zerrenda (Herbert Mathews, Kitty Bowler, Tom Wintringham) eta Robert Capak egindako erreportajeak, besteak beste. Baina deigarriena, zantzarik gabe, Goiaren eleberriak itsasontzian bidaiatu zuten haurren sentimenduetan sakontzeko egiten duen ahalegina da, Peruren kontakizunaren bidez: «Nire ondoan beldurrez egon zen mutil hura askotan etortzen zait akordura. Gerora jakin nuen Gernikan bertan zegoela bonbardaketa gertatu zen egunean eta egun hartatik aurrera traumatizatuta gelditu zen» (84). Modu honetan, Habanan desplazatuak aipatu dituzten beste euskal eleberri kanonikoek emandako ikuspuntuak osatzen ditu. Zehazki, Bernardo Atxagaren *Soinujolearen semea* (2003) edo Kirmen Uriberen *Mussche* (2012). Goiaren eleberriko protagonistak planteatzen duen galderak agerian uzten du zein erabakigarria izan zen Gernikako sarraskia: «zer gertatuko ote zen faxista madarikatu haiek Gernika bonbardatu izan ez balute?» (175).

Corpuseko beste bi nobeletan, berriz, Picassoren koadro ezaguna bihurtzen da hizpide. Kontua ez da, halere, koadroari buruzko argibide edo xehetasunak eskaintzea. Emakumezkoen narratibak gehienetan egiten duen antzera, irakurketa askoz ere kritikoagoa, selektiboagoa eskaintzen zaigu eleberrietan. Esango nuke Régine Robinek *La Mémoire saturée* (2003) lanean aldarrikatu bezala, gure oroimen kolektiboan txertatuta dauzkagun Gernikari buruzko irudi-saturazioaren aurrean, memoria kritikoago baten alde egiten dutela, informazio gaindosi hori baztertze aldera.

Hala, ondoren komentatuko ditugun eleberrietan, Gernika ez da erdigunean dagoen gaia, protagonistaren bizitzaren une garrantzitsuenetan, Picassoren mihi-searen bitartez, oroitzen den gertakaria baizik. Beste hitz batzuekin esateko, pertsonaien bizitzetako une gogoangarrietan, dela alabaren jaiotza-egunean, dela gure hiltzeko unean, hortxe azaleratzen da Picassoren koadroa.

Bere aldetik, Miren Gorrotxategiren (1981) estreinako nobela, *33 ezkil* (2016), Agustin Zubikarai Saria irabazi zuen eleberri beltza da, eta 2020an izan zuen bere egokitzen filmikoa, Imanol Rayoren zuzendaritzapean Donostiako Zinemaldian estreinatu zen *Hil kanpaiak* izenarekin. *33 ezkil* eleberrian Garizmendi baserriko lurretan Ferminek aurkitzen duen buruhezurrak abiatzen du historia eta trama konplikatzen hasten da, aurkikuntza horrek, gerora, hainbat desagerpen eta heriotza ekarriko baititu. 80etan euskal eleberrigintzan modan egon ziren fikzio neorrealisten ildotik (ik. Olaziregi, 2012), *33 ezkil* ere euskal ohiturazko fikziogintzak XX. mendearen hastapenetan irudikatzen duen baserri giro idilikotik urrun dago. Gorrotxategirenak landa giroko euskal eleberri beltzek dituzten osagai guztiak ditu: Garizmendi eta Garizmendi-Berriko nagusiak elkar gorrotatuko duten bi anaia dira, Fermin eta Estanis, eta biek ala

biek emakume berarekin, Karmenekin, izango dute harremana. Horretaz gain, bi anaia bikiek, Karmen eta Ferminen semeek, bi izaera antagoniko izango dituzte eta heriotza, droga nahiz desagerpenez beteriko trametan egongo dira murgilduta. Suspensearen dosifikazio egokia, narratzaile aniztasuna, edo txandakatuz doazen bi planoen konbinaketa dira eleberriak baliatzen dituen estrategietako batzuk. Esandakoaz bat, Gernikari dagokionez, bonbardaketak ez du, inondik ere, tramaren bilakaeran inongo pisurik izango eta hasieran baserrian aurkitutako buruhezurrak eta berau aztertzen laguntzeko azaltzen den Berta pertsonaiak, indusketetan aditua denak, horretarako beta eman bazezakeen ere, kontua da eleberriaren azken atalean bakarrik azaltzen dela Gernikari egindako erreferentzia, Picassoren koadro ezagunaz egiten den aipuari esker.

Fermin protagonistaren suizidioaren azken uneekin jartzen gaitu aurrez aurre atal honek. Elizan egiten du bere buruaz beste, eskopeta bati esker eta 33 kanpai hots entzuten diren unean pentsatzen dituenak kontatzen dizkigu narratzaile kanpodiegetiko-heterodiegetikoak. Picassoren mihisea burmuinean itsatsita daukala esaten digu, inoiz ikusiko ez duen koadroa, baina hiltzeko unean, zinez modu ulertezinean, burura datorkiona. Katanarruan daraman bere seme bikien argazkiaren oroimenak dakarkio gogora Picassoren koadroa, semeak zuriz jantzita baitaude bertan. Memoria kolektiboan txertatutako mihise ezagunaren zuri-beltzak eramango dute Fermin hiltzeko une gogoangarrian koadroaz gogoratzeraz:

Hilaurretik, bikiez oroitu nahi du, txikiak zirenean, katanarruan daraman argazkian bezala, zuriz jantzita, baina Picassoren Gernika etortzen zaio burura, eta ez daki hil aurretik zergatik etorri behar zaion burura Picasso; bere bizitza behar luke begien aurrean zuri-beltzean pasatzen zaiona, ez koadro hura (189).

Eta:

Heriotza-atariaren absurdoan, Ferminen negar egin zuen zuri-beltzeko Gernika sekula santan ikusiko ez zuelako (190).

IV. AMAK

Feminismoak bere garai (olatu) desberdinetan, amatasuna izan du, ezbaierik gabe, eztabaida eta hausnarketagai funtsezkoenetakoa. Dela amatasunaren alde ezkorrak azaleratu nahi izan zituen De Beauvoirren feminismo klasikotik hasita, amatasunez pluralean hausnartzen duten gaur egungo hurbilpenetara, tartean Adrienne Rich eta enparauen lan ezagunen ekarpena aitortuz, ikerlan eta fikzio garaikideak amatasunaren dekonstrukzioa aldarrikatzen duten lanez bete zaizkigu. Euskal literaturaren kasuan, hainbat argitalpenetan aztertu ditugu gaur egungo euskal emakumezko nobelagileek amatasuna eta konpromezu abertzalea uztartzean azaleratu dizkiguten estereotipo eta genero rolen kritikak (Olaziregi 2023). Amatasunak berez euskal emakumezkoek idatzitako literaturaren baitan gai nagusia izaten jarraitzen badu, memoria historikoa irudikatzen

duten lanetan are gehiago, bereziki, abertzaletasunak, izan tradizionala ala ez, emakumezkoei egotzitako rola kritikatzeko helburua izan duten lanetan. Jakina denez, abertzaletasun tradizional sabindarrak emakumezkoari egotzitako funtzio nagusietakoa aberriari umeak ematearena izan baitzen, umeak eman eta euren hizkuntza, fedea eta abertzaletasuna transmititzea.

Aztertu dugun corpusean, Irati Elorrietaren *Neguko argiak* (2017) eta Alaine Agirreren *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama* (2017) eleberrietan, nahiz Goiatz Labandibarren *Amez* (2022) ipuin liburuan, amatasuna ez dago tramaren erdigunean. Liburu horietan azaltzen zaizkigun Gernikari buruzko erreferentziek ez dute bonbardaketaren deskribapen, xehetasun, bilakaera edo azterketa sakonik eskaintzen. Helburua beste bat da: Gernikan galdu zena gorputzean markatutako galera gisara aurkeztea (Alaine Agirre), Gernikan hildako haurren dolua galera pertsonalagoekin lotzea (Elorrieta), edo amek gerran (gerretan) izan dituzten rol desberdinak azaleratzea, batzuetan ideologia euren haurrenganako maitasunaren gainetik jarriz (Goiatz Labandibar).

Irati Elorrietaren *Neguko argiak* (2017) eleberri sarituak Berlinen lanean diharduten euskaldun gazteekin jartzen gaitu aurrez aurre. Bakardadea, zaurgarritasuna, prekaritatea... eleberri koral honetako pertsonaien bizitzan ezaugarri dira eta Gernikari erreferentzia protagonistetako batek, Martak, Patti Smithen memorien kritika bat irakurtzen diharduenean azaltzen da. Aipatzen ez den arren, *Just Kids* (2010) izeneko memoria-liburuaz ari da Marta, Book National Award ospetsua irabazitakoa eta *New York Times*-en 2010eko urtarrilaren 17an Elorrietaren eleberrian aipatzen den kritika merezi izan zuena. Smithek, 19 urterekin, 1966an izan zuen alaba bonbardaketaren 30. urteurrenean jaio zen²:

Patti Smithen egutegi partikularrean sartuko liratekeen gertaerak aipatzen zituena liburuaren kritikak. Esaterako, Jeanne d'Arc-en urtebetetzea. Eta: Gernikako bonbardaketaren eguna. / –Eskerrak eman beharko zaizkio Picasso jaunari. / –Agian bai. Kontua da bonbardaketaren 30. urteurrenaren egunean jaio zela bere alaba (275).

Badakigu Picassoren koadroko amaren irudiak deitzen diola atentzioa Smithi, besoetan haur hila duen amaren sufrimenduak. Picasso bera obsesionatzen zuen irudia da besoetan haur hila duen amarena, eta *Guernica*-ren ondorengo postkriptoetan, nahiz negarrez irudikatu zituen emakume-buru ugarietan kausi dezakegu. Picassoren irudiaren indarra, minean itota dagoen ama horri erreparatzen dio Smithek bere memorietan, Richek esango lukeen bezala, «amatasuna anbiguotasunik gabe eta balio patriarkalen arabera esperimentatzen duen ama onari» (1983: 234). Ama eredu horretatik aldeni eta alaba adopzioan ematea erabaki zuen Smithek. Koadroaren amatasun etena Smithen amatasun zapuztuarekin alderatzen dela esan genezake. Dakusagunez, Picassoren mihiseak bonbardaketaren mundializazioan izandako garrantzia

² Hauxe da jatorrizkoa: «My child was born on the anniversary of the bombing of Guernica. I remember thinking of the painting, a weeping mother holding her dead child. Although my arms would be empty and I wept, my child would live, was healthy, and would be well cared for. I trusted and believed that with all my heart.» (Smith 2010: 13)

aitortzeaz bat, norberaren trauma eta hausturak aditzera emateko ere balio duela iradokitzen digu Elorrietaren nobelak.

Bere aldetik, Agirreren *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama* eleberri hunkigarria da, ausarta, buruko gaixotasunaren gaia, amatasuna eta ama-alaba arteko loturen bilakaera kontatzea helburu duena, amari zuka mintzo zaion narrazio zuzen eta edergailurik gabekoan. Gernikaren erreferentzia zeharkakoa da, protagonistaren amonak begian izan zuen istripuagatik medikuarenera Bilborantz doala Gernikatik pasa eta «Frontoia bakarrik ikusi zuten: bonbardaketaren ondorioz ez zen ezer geratzen: ez arima, ez bizi» (78). Begiaren galera, Gernikaren suntsipenarekin lotzen da, emakumezkoaren gorputza, amonarena kasu honetan, gatazken gudu-zelai bilakatuz. Bolada batez, begi faltak utzitako zuloa bete gabe eraman beharko du amonak, kristalezko begia Alemaniatic ekarri behar baitzen, eta, dakigun bezala, alemanek Gernika suntsitu egin baitzuten. Hau da, borreroak ezin estali berak ezabatu duena. Beraz, emakumezkoaren idazketa, gorputzaz eta gorputzetik egiten dena, Gernikan gertatutako galera ordezkazien esparru sortzailea da 2017ko nobela honetan.

Labandibarren ipuinak, bestalde, indartsuak dira, ama izateko modu ugari eta kontraesankorrak, amatasunari buruzko usteak, ez-ohiko amak, ama frustratu, ez abnegatuak azaltzen zaizkigu, ipuin zuzen eta laburretan. Baita omenaldi literario esanguratsuak ere, hastapenetan aipatu dugun Aleksievitx bezala, edo «jaiotza-greba» proposatuz mintzo den Rosa Luxemburgo bera. Ipuin horietako batek, “Munstroa” izenekoak, Iulia Agripinaren, Agripina Gaztea gisara ere ezaguna izan zenaren larrutan jartzen gaitu, eta bere seme Neronen sarraskien erantzule ez den ama aurkeztu:

Historia idatzi dutenek —bai, letra larriz— beti egin gaituzte amok gure semeek egindako ankerkeria eta txarkeria guztien erantzule. Gu izan bagina bezala Erromari su eman genionak, Gernika, Dresden edo Hirosima bonbardatu genituenak (...): historiak ez ditu amak maite. Ez digu deus barkatzen (124).

Agripina Gaztea pertsonaia historikoak, bere sabelean Neron «munstroa» eraman zuenak, Freud nahiz Sollier eta Courbon psikiatra belgiarrak kritikatzin ditu ipuinean, «Agripina konplexua» deritzonaren sortzaileak, eta baita garaiko idazle ezagunak ere. Ironikoa da erabat ipuinaren tonua eta pertsonaia femenino ahaldundu gisara aurkezten zaigu. Helburua: gudan zalan sortzea emakumezkoak eta bereziki amak medikalizatu eta kriminalizatzeko asmatutako mitoez. Historiak zigortutako amak, dolugarriak ez direnak.

Hortxe dago koska, Judith Butlerrek *Frames of War*-en (2009) esan bezala, bizitza guztiek ez dute balio bera, batzuk bakarrik baitira dolugarriak. Emakumezkoak, bereziki amak, hildako semeagatik sentitzen duen min erdiragarriagatik negarrez irudikatu ditu mendebaldeko arteak. Etengabe errepikatu den irudi horretan, dolua amei egokitu zaie. Halaxe esplikatzin du, bikain azaldu ere, MHLI ikertaldeko Amaia Elizalde Estenaga irakasleak (2019); Miguel Angelek XV. mendean sortutako eskultura ederraren berridazketak aztertzen ditu, batez ere, euskal kultura esparruan memoria historikoarekin lotutakoak. Elizaldek argi azpimarratzen du, besteak beste, Javier García

Luengo Manchado (2016) eta Manuel Borja Guillénen lanetatik abiatuz, Picassoren *Guernica* ezagunean irudikatzen dela lehenengoz pietatea gatazka beliko bati lotua. Estetika errealista edo naturalistari uko eginez, sorkuntza abangoardista bihurtzen da XX. mendean sarraski belikoak salatze bide egokiena. Picassoren lana Pariseko 1937ko erakusketan zintzilikatu zutenean ebidentzia enpiriko guztien kontra (lan abangoardista zen, collage egitura duena, ikusleriaren «irakurketa» errazten ez zuena), mihisea gerra dokumentu bihurtu zen. Vicente Sánchez Bioscak (2008) honakoa azpimarratu du: artelanak eskura zeuden bonbardaketaren argazki eskasen aurrean abantaila handia zuela, izua, biktimen presentzia emozioz betea irudikatzen baitzuen. Gogora Institutuaren webgunean irakur daitekeen Xabier Irujok paratutako *Atlas de bombardeos de Euskadi* (1936-1937) lan izugarrian halaxe azpimarratzen da: euskal lurrian egon ziren bonbardaketen ia laurdena terrorezko bonbardaketak izan zirela, terrorea eraginez, populazioaren morala deuseztatu eta errenditzea bilatzen zutenak. Izugarrikeria hori irudikatzen asmatu zuen Picassok eta koadroan garrantzia duda ezinezkoa duen ama horrek, *mater dolorosa* horrek, besoetan duena ez da gurutzeari hildako semea, baizik haur bat, jatorrizko pietatearen kutsu erlijiosoa eraldatuz. Euskal artista ezagunek gerora eskainiko dizkiguten berridazketek ere, Oteizak Arantzazun, edo Gabriel Arestik “Josefa Mendizabal Zaldibian” (1974) poeman pietatearen berridazketa politikoak eskainiko dizkigute, kasu horietan ETaren gatazka armatuarekin lotutakoak, baina guztietan emakumezkoaren rola argia da: *mater dolorosa* irudikatzen du, hildako seme/haurrarentatik negar egiten duena. Dolua egiten dugunak, beraz, emakumezkoak gara, amak. Galdera argia da: hildako emakumezkoengatik nork egiten du negar? Noiz bihurtzen dira emakumezkoak gure artelanetan dolugarriak?

V. PICASSOTIK ZUMETARA

Picassoren koadroari ez baizik Jose Luis Zumeta usurbildarraren 1999ko *Gernika* koadro ikusgarriari egiten diote erreferentzia corpuseko beste bi lanek. Bistakoa da erreferentziotan Picassoren koadro ezagunaren oinarrian dagoen gertakari historikoa eta geografia, Gernika, euskal artista baten interpretazio piktorikoarekin indartu nahi dela. Koadroak, gainera, Picassorenak izan duen indar alegorikoari ez dio muzin egiten, Zumetaren mihise ezaguna ere ETak eragindako gatazka armatuarekin birsemantizatu baita (gogoratu, besteak beste, ETaren suetenaren berri emateko *Gara* egunkariak 2011ko urriaren 21ean azal eta kontrazalerako hautatutako irudia izan zela, edo Xabier Gantzarainek bere saiakeran Zumetaren koadroko oinazpian Joxe Arregiren oinazpi erreak ikusi zituela; ik. Gantzarain, 2018). Zumetaren olio pintura erraldoian (350 zm. x 780 zm.) ez dugu hirukian oinarritutako konposiziorik, zeru ilunegi batetik erortzen diren bonbak, leherketak... dena kiskaltzen duen sua dakusagu. Eta koloreak, noski, kolore hotz eta beroen kontrastea, kontakizunari mugimendu izugarria ematen dion koloreen mozkorraldi erabatekoa. Danteren infernuko zazpigarren zirkuluan egon gintezke, bortizkeriaren erreinuan, biktimen pilaketak izutzen gaitu, biktimen ahotatik sartzen diren azkonek asaldutzen gaituzte. Zumetaren *Gernika* aurkituko dugu Eider Rodriguezen “Bihotz handiegia” (2017) ipuin

bikainean, etxe dotore bateko egongela/sukaldean, Chagallen koadro baten ondoan. Ez da beste erreferentzia edo azalpenik ematen, bonbardaketa ez da istorioaren erdigunean dagoen erreferentzia, baina protagonistak badaki gogoaren kontra zaindu behar duen senar ohiaren logelan sartu bezain pronto bere mina, bere gorrotoa berpiztuko zaizkiola, Gernika aipatu hutsarekin berpizten zaizkigun bezala.

Askoz ere esplizituagoa da Ixiar Rozasek *Patio bat bi itsasoen artean* (2002) poema liburuan Zumetaren koadroari egiten dion erreferentzia. Liburua bi zatitan dago antolatuta, lehenengoan Bartzelona hiriko etxalde batean egunerokotasuna, kultura aniztasuna, patio eta kaleetan garatzen doan bizitza sentitzen dugu. Bigarren zatian, berriz, gehiago salatzen dira gure garaia astintzen duten bazterkeria eta injustiziak, eta hor sartzen da Gernika. Leire Iruretagoienak MHLI ikertaldea prestatzen ari den Memory Novels Lab datu-basean Zumetaren koadroaz zera esaten du:

Sarraskiek eta testuinguru gatazkatsuek eragindako traumei bide nola eman galdegiten duen itauna gailentzen da, hain zuzen ere, testuan barrena: «zerutik zintzilik diraute / mina / heriotza / gorrotoa / nora doaz / odolaren eztandaz zipriztindurik / koloreetan amiltzen dira / heriotza hutsalez nekaturik dagoen / esku ahurrera / nora doaz / deiadar urrunak / oihartzun intziarik / [...] bizitza bera / nora doa» (43). () Ekfrasi bidez, Zumetaren *Gernika*-n azaltzen diren gorriaren eta beltzaren tonu guztiak esanahiz gizentzen ditu poetak, biktima errugabeek isuritako odolaren eta errauts bihurtutako herriaren ideia nabarmentzean: «odolaren eztandaz zipriztindurik / koloreetan amiltzen dira / heriotza [...]». () Honenbestez, poema honetan Gernikaren dimentsio historikoaren eta alegorikoaren arteko elkarrizketa, are sinbiosia, gertatzen dela esan genezake.

VI. AMAITZEKO

Artikulu honetako lerroetan euskal emakume idazleek azken hamarkadetan Gernikaren bonbardaketaz eta Picassoren mihise ezagunaz eskaini dizkiguten irakurketa batzuk azaleratu nahi izan ditut. Bistakoa da frontean borrokatu zuten gudariengandik aldentzen den begirada dela eurena, istorio epikoetatik urrunduz, bonbardaketak gudan utzitako orbainak, hutsuneak, markak azaleratu nahi dituen irakurketa gailentzen dela. Literatur lan hauetako pertsonaien egunerokotasunean Gernikak/*Guernicak* oraindik duten presentzia ikusita, bistakoa da iragana gaurtik eta gaurko kezkekin berridazten jarraitzea ahalbidentzen duen gertakaria dela bonbardaketa eta baita beronek eragindako artelan ezaguna ere.

BIBLIOGRAFIA

- Agirre, A. (2017) *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama*, Donostia, Elkar.
- Aleksiévich, S. (2015) *La guerra no tiene rostro de mujer*, Madril, Debate.

- Butler, J. (2009) *Frames of War. When is Life Grievable?*, New York, Verso Books.
- Bennett, J. (2005) *Empathic Vision: Affect, Trauma, and Contemporary Art*, Stanford UP.
- Crespo, C. (2022) *Tene Mujika udazkeneko argitan*, Debako Udala.
- Elizalde, A. (2019) «Representaciones culturales de la Pietá de la Guerra de 1936 en adelante en el contexto vasco: el cuerpo del relato», 2029/10/24ko hitzaldia, <https://ehutb.ehu.eus/video/5dfa5b30f82b2b2a688b461f>.
- Elorrieta, I. (2018) *Neguko argiak*, Iruñea, Pamiela.
- Esteban, M. (2017) *Feminismoa eta politikaren eraldaketak*, Zarautz, Susa.
- Gantzarain, X. (2018) *Zuloa*, Donostia, Elkar.
- Goia, G. (2013) *Txartel bat (des)herrira*, Donostia, Elkar.
- Goikoetxea Agirre, N. (2022) *Tene Mujika emakumea. Pizkundetik ahanzturara. XX. mendetik ateratako postargazkiak*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.
- Gorrotxategi, M. (2016) *33 ezkil*, Donostia, Elkar.
- Crespo, C., Goikoetxea Agirre, N. eta Ibarrola, B. (2022) *Tene Mujika*, Debako Udala.
- Iruretagoiena, L. (2023) «Ixiar Rozas. Patio bat bi itsasoen artean», *MeNLab*, https://mhli.net/mnllabs/?_sft_egileamlab=ixiar-rozas
- Izagirre, K. (1989) *Balizko erroten erresuma*, Zarautz, Susa.
- Labandibar, G. (2022) *Amez*, Zarautz, Susa.
- Meabe, M.A. (2006) *Urtebete itsasargian*, Donostia, Elkar.
- Olaziregi, M.J. (ed.) (2012) *Basque Literary History*, Reno, Center for Basque Studies.
- Olaziregi, M.J. (2014) «Gernika Revisited: Representations of the Spanish Civil War in Basque Children and Young Adults Literature», in Blanca-Ana Roig Rechou eta Veljka Ruzicka Kenfel (ed.) *The Representations of Spanish Civil War in the European Childrens Narratives (1975-2008)* (87-102), Lausana, Peter Lang.
- Olaziregi, M. J. (2023) «Maternidades contestadas en la narrativa de las escritoras Arantxa Urretabizkaia y Lourdes Oñederra», *eHumanista/IVITRA* 23: 125-135 or..
- Olaziregi, M.J. + Otaegi, L. (2011) «La representación del bombardeo de Gernika en la literatura vasca», *Revista Internacional de Estudios Vascos* 8: 40-61 or..
- Retolaza, I. (2009) «Gernikako bonbardaketa euskal literaturan: errepresentazio eta begirada poetikoak», *Euskera*, 54 (2): 1079-1108 or..
- Robin, R. (2012) *La memoria saturada*, Buenos Aires, Waldhuter Ed.

- Rodríguez, E. (2017) *Bihotz handiegia*, Zarautz, Susa.
- Rozas, I. (2012. *Patio bat bi itsasoen erdian*, Gasteiz, Arabako Foru Aldundia.
- Todorov, T. (2002) *Memoria del mal, tentación del bien: indagación sobre el siglo XX*, Madril, Península.
- Zubiaga Arana, E. (2023) «Cautivas y desarmadas. Mujeres ante los consejos de guerra del País Vasco (1936-1945)», *Espacio, Tiempo y Forma. Serie V. Historia Contemporánea* 35, 39-62 or..

